

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

7938 *Huts-zuzenketa, errege lege-dekretu honena: 24/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 26koa, Enplegua suspertzeko eta lan autonomoa babesteko gizarte-neurriena eta industria-sektorearen lehiakortasunarena.*

Hutsak aurkitu ditugu Enplegua suspertzeko eta lan autonomoa babesteko gizarte-neurrien eta industria-sektorearen lehiakortasunaren ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuan, zeina 2020ko ekainaren 27an argitaratu baitzen, *Estatuaren Aldizkari Ofizialaren* 178. zenbakian, eta, honen bidez, behar diren zuzenketak egiten ditugu:

2. orrialdean, zioen azalpenean, bigarren paragrafoan, hau dio: «Era berean, eta aurrekoaren ondorioz, ezin izango da aparteko ordurik egin, ez eta jarduera kanpora atera edo externalizazioei berriz ekin ere, eta ezingo da kontratazio berririk hitzartu, ez zuzenean, ez aldi baterako laneko enpresen bidez, artikulua honetan aipatzen diren aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak aplikatzen diren bitartean». Baina hau esan behar du: «Era berean, eta aurrekoaren ondorioz, ezin izango da aparteko ordurik egin, ez eta jarduera kanpora ateratzeko neurri berririk hartu ere, eta ezin izango da kontratazio berririk hitzartu, ez zuzenean, ez zeharka, artikulua honetan aipatzen diren aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak aplikatzen diren bitartean».